



Oinarrizko ekintzak

Atal honetan, bezeroengana nola iristen garen, eskaerak nola kudeatzen ditugun eta gure dutxen instalazioa nola egiten dugun azaltzen da. Hau da, gure eguneroko oinarrizko lanak: komunikazioa, salmenta eta muntaketa koordinatuta funtzionatzeko modua.

Dutxak Luxury Home hornitzaileari erosten dizkiogu, eta turbinak ere kanpotik erosten ditugu.

Lehenik, bezeroak eskaera egiten duen momentuan, guk jasotzen dugu eta berarekin harremanetan jartzen gara instalazio eguna adosteko. Garrantzitsua da esatea gure dutxak fabrika muntatuta datozela: turbina, fluxu-sentsoreak, temperatura-sentsorea eta argi abisatzailea integratuta daude. Horrek dena azkarrago eta errazago bihurtzen du.

Instalazio egunean, guk daramagun dutxa prest dago, eta bezeroaren bainugelan instalatzea besterik ez dugu egin behar. Dutxako goiko hodia deskonektatzen dugu eta gure sistemaren lotura egiten dugu, guztia behar bezala konektatuta geratzeko. Ez ditugu piezak muntatu behar, fabrikatik muntatuta datozelako; beraz, instalazioa garbiagoa eta azkarragoa da.

Azkenik, sistema osoa probatzen dugu eta argi txikiak ondo funtzionatzen duela egiaztatzen dugu, dutxa gelditzen denean edo kontsumoa handiegia denean abisatzeko. Bezeroari azalpen laburra ematen diogu nola erabili, eta lehen momentutik guztia ondo dabilela ziurtatzen dugu.

Azken finean, instalazio prozesu osoa azkarra, garbia eta erabiltzailearentzat erraza da. Bezeroak ez du ezertaz kezkatu behar: guk dena prestatzen dugu eta, minututan, dutxa arrunta AquaSave dutxa adimendun eta jasangarri bihurtzen da. Hortik aurrera, erabiltzaileak bere kontsumoa kontrolatu, ura eta dirua aurreztu, eta eguneroko dutxa ohitura askoz ere arduratsuago bihur dezake.